



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2010-03-26

VIII. URTEA 1962. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Morato Siriako basamortuko Palmiraren hondakinetan. HITZA

CRISTINA MORATO KAZETARIA, IDAZLEA ETA BIDAIARIA

«Ekialdera joan ziren emakume bidaiarien inguruan hitz egingo dut»

TOLOSA Amalur Jardunaldiei amaiera emango dio gaur eskainiko duen hitzaldiarekin 3



Larrauldarrak, babesa eta aldeko bozka eman zieten ordezkariekin legebiltzarrean. HITZA

## LARRAULGO ESKOLAK IA BABES OSOA JASO DU LEGEILTZARREAN

LARRAUL PSE-EE ezik gainontzeko guztien babesa izan zuten, baina Hezkuntza Sailaren esku dago herriko eskola txikiaren etorkizuna 7

## Annapurnako bigarren kanpalekuan daude

TOLOSA Edurne Pasaban mendizalea eta bere taldekideak 5.600 metrora daude jada 2

## Aberri Eguna bitarte ikurrina balkoietara ateratzeko deia egin dute

IBARRA «Gure herriaren jabe izateko dugun eskubidea» aldarrikatzeko eskatu dute 4

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO  
**hitza**  
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 09:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:  
Arabako etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 311860 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

## Martxoaren 27an denok kalera!

Erreformen aurrean langileok eredu berri bat gizarte eta lan-eskubideen murrizketa gehiagorik ez

Manifestazioa - Donostia, Boulevard 17:30

ELA-LAB-ESK-STEE/EILAS-EHNE-HIRU

## «Nerbio-sisteman zuzenean eraginez oreka lortzea da kiropraktikaren proposamena»

JUAN ALONSO » Kiropraktikan doktorea

**Osasuna** » Hitzaldia emango du gaur kiropraktikaren inguruan, Kultur Etxean, 19:00etan hasita.

INIGO TERRADILLOS

Juan Alonso kiropraktikan doktoreak *Zure bizkarrezurra zainduz osasuna lortu* izenburupean hitzaldia emango du gaur, 19:00etan, Tolosako Kultur Etxean. Askorentzat oraindik ezezaguna den zientzia azaltzen saiatuko da ordubate inguruko saioan.

**Zein da kiropraktikaren zutabe nagusia?**

Kiropraktikaren oinarria nerbio-sistemaren funtzionamendu falta baten ondorioz sortzen diren osasun arazoei irtenbidea ematea da.



HITZA

**Nola egiten duzue hori?**

Teknika batzuk ditugu. Gure nerbio-sistemak gorputz osoaren funtzionamenduari kontrola eta koordinazioa eramaten du. Ner-

bio-sistemaren funtzionamenduan desoreka bat sortzen denean gorputzaren sistema guztiak sartzen dira desoreka batean. Horietako bat gihar sistemaren funtzioa da, eta honek desoreka bat duenean bizkarrezurrean eragina izan dezake, hori mugituz. Era berean, bizkarrezurra mugitzean nerbio-sistemaren eragina izan dezake, eta horrela zirkuitu itxi bat sor dezake. Burmuinaren funtzionamendua hobetuz osasun arazoak senda daitezke, eta horretarako berebiziko garrantzia du bizkarrezurrean alineazio on batek. Gure lana burmuinaren funtzionamendua orekatzea datza, eta ez bizkarrezurra zuzen jartzea, eta hori azalduko dut gaueko hitzaldian.

**Oreka hori nola neurtu daiteke?**

Pertsona bakoitzaren nerbio-sistema zein puntutan dagoen jakite-

ko gailuak ditugu. Pertsona bat ondo egon daiteke, nekatuta edota estimulazio gehiegirekin, eta hori guztia jakin dezakegu, eta baita nola lagundu ere. Kiropraktikaren bidez onurak zuzenekoak direla ikusten dugu, medikaziorik gabe. Medikazioak ere saiatzen dira kimikarekin oreka hori lortzen, baina, beti kanpoaldetik. Gure proposamena da balantza edo oreka lortzea nerbio-sisteman zuzenean eraginda.

**Kiropraktika ezagutzen al dugu?**

Geroz eta ezagunagoa da. Egia da oso berria delagurean, eta oraindik kiropraktikaren errekonozimenduari atzetik gabiltzala. Beste lurralde askotan onartuta eta ulertuta dago, baina hemen ez. Horretatik ematen ditut hitzaldiak ezagutarazteko eta osasuna nola berreskuratu ulertu dezan jendeak.

## 350 dantzari txiki ariko dira bihar, Alde Zaharreko kaleetan

**Kultura** » Dantzari Txiki Eguna antolatuta du Udaberri Dantza Taldeak; egun osoan zehar dantza eta jai giroa izango da.

ERREDAKZIOA

Dantzari Txiki Eguna izango da bihar, Udaberri Dantzari Taldeak antolatuta. Euskal Herriko hainbat dantza taldeetako gaztetxoak ariko dira egun osoan, 350 inguru, 30 musikariren doinuaren harira dantzari.

Goizean Alde Zaharreko kaleetan ibiliko dira, eta elkarrekin bazkaldu ostean, 16:30ean Plaza Berrian elkartuko dira denak emanaldia eskaintzeko. 20:00etan triki-txaranga poteoa egingo dute eta gero afora Zerkausion.

## Hirugarren kanpalekua eskura

**Mendia** » Geroz eta gertuago dute Eburne Pasaban eta bere espediziokideek Annapurnako gailurra.

ERREDAKZIOA

Guztia aurreikusitako bezala doa Eburne Pasaban eta bere taldekin Annapurnarako espedizioan. Une honetan, 5.600 metrora kokaturiko bigarren kanpalekuan aurkitzen dira, eta hirugarren kanpalekura joateko bidea irekitzea izango dute helburu datozen egunetan.

Iragan larunbatean, 1 kanpalekuan lo egin ostean, 2 kanpalekura abiatu ziren, eta 5 orduko igoaldian ondoren iritsi ziren 5.600 metrora kokaturiko jomugara. Kanpaleku hori behar bezala egokitu eta gero, berriro ere oinarritziko kanpalekura abiatu ziren atseden



Pasaban eta taldekideek bigarren kanpalekurako bidean. RTVE/AL FILO DE LO IMPOSIBLE

hartzera. Herenegun bigarren kanpalekurako bidean jarri ziren. Bertan hiru egun igaroko dituzte, eta epe horretan 6.500 metrora dagoen hirugarren kanpalekurako bidea ireki eta kanpalekura bera egokituko dute.

Urteko sasoi honetan ohikoak ez diren tenperatura beroak ari dira jasaten. Pasabanean dioen bezala, «eguraldi ona egitea beharrezkoa da, baina beroa arriskutsua ere izan daiteke, elur-jausiak sortzeko arriskua baitago».

## Laburrak

### Tolosa Kup txapelketan izena emateko epea

**KIROLA** » Aurtengo Tolosa Kup txapelketako informazio guztia [www.zazpitantriangulon.com](http://www.zazpitantriangulon.com) webgunean jarri dute ikusgai. Parte hartu nahi dutenek apirilaren 9rako izen-emate orria diru sarrearen agiriarekin batera Kultur Etxean utzi beharko dute. Bestalde, taldeen multzoak osatzeko zozketa apirilaren 13an egingo dute, 18:00etan, Kultur Etxean. Txapelketa apirilaren 17-18ko asteburuan hasiko da.

### Alkoholiko Anonimoen bilera datorren asteartean

**GIZARTEA** » Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak, hileroko azken astearteko bezala, bilera irekia egingo du datorren asteartean, hilaren 30ean. Corpus Christi parrokiko lokaletan kokaturiko egoitzan izango da, 20:00etan. Alkohola eta bere ondorioak izango dituzte mintzagai. Bilerara gonbidatzen dituzte alkoholaren ondorioak pairatzen dituztenak eta euren senideak.

### Musika Bandaren Pazko kontzertua, Berdura plazan

**MUSIKA** » Tolosako Musika Bandaren Pazko kontzertua izango da bihar, Berdura plazan, 19:00etan. Luis Mari Gartziairen gidaritzapean ondorengo lanak izango dira entzungai: *Berraotarrak*, *Children of Sanchez*, *La boda de Luis Alonso*, *West side story*, *Los Euskaros* eta *Charleston forever*. Udaberriko kontzertua izango da Musika Bandaren hurrengo emanaldia, apirilaren 24an.

### Jesus Torquemadarekin ikastaroa nazioartean

**GIZARTEA** » Tolosaldean Ikastn zerbitzuak antolatuta, Nazioarteko gaurkotatutako buruzko ikastaroa hasiko da apirilaren 12an, Jesus Torquemada kazetariarekin. Astelehenean izango da 19:00etatik 21:00etara, Topic-en, eta 30 euro ordaindu beharko da parte hartzeko. [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com)-era idatzita, [www.ikastn.com-en](http://www.ikastn.com-en), edota 943 65 11 47 edo 615 775 678 era deituta eman daiteke izena.

**elduain**  
taberna-jatetxea

Eguneko menuak  
Astebukaeraren menu bereziak  
Plater konbinatuak  
Ogitartekoak

Elduain hirugarra, 1  
30493 ELDUAIN (Gipuzkoa)  
Tel. 943 68 33 27

Norik\_amaia\_27@euskalherria.org Euskal Herriko produktuak, ekoizlearengandik zure eskura

Ohitura hartu dut eguneroko erosketak euskal Herriko Plazan egiteko: garbantzuak, olioak, hegalarrea, ospina, sagardoa, ardoa, gazta... Behin erosi eta bolada baterako badakur.

26,75 €  
Errref.: 380001  
Delicass,  
ahateki sorta  
4 produktu

37,45 €  
Errref.: 200005  
Alfar,  
olioa  
25 cl-ko 12 botila

Beste produktu askoren artean, hauek topatuko dituzu Euskal Herriko Plazan.

ETXERRA  
LANERA  
EKOIZERA

www.euskalherriko  
**plaza**.com  
plaza@euskalherriko.com

>>>erosi gurean

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Kirol jarduera

### Gaur, hilak 26

#### Areto futbola

■ Usabalgo beheko kantuan, 20:45ean, nesken partida: Laskorain-Idiazabal.

■ Usabalgo goiko kantuan, 20:45ean, mutilen partida: 2. Laskorain - Euskalduna.

### Bihar, hilak 27

#### Areto futbola

■ Usabalgo beheko kantuan, 16:00etan, jubenilak: Laskorain-Lauburu.

■ Usabalgo goiko kantuan, 16:00etan: 3. Laskorain - Aidur.

#### Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantuan, 12:00etan, infantilak: Tolosa - Urnieta.

#### Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean, infantil mutilak: Ipar TAKE- Aloña Mendi. Infantil neskek: Ekhi TAKE-Orio.

■ Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, kadete mutilak: Bide Bide TAKE- Aldapeta. Kadete neskek: TAKE Aralar-Ordizia.

■ Usabalgo goiko kantuan, 18:00etan, Nazional Maila: Bide Bide Ibiza- Ate La Salle.

#### Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, emakume kadeteak, F-8, 09:30ean: Tolosa CF - Iintxa.

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, infantil mutilak: Anoeta - Intxaurreondo.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infantilak: Tolosa CF - Internacional.

■ Usabalgo futbol zelaian, infantil Ohorezko Maila, 12:30ean: Tolosa CF - Sporting Herrera.

#### Pilota

■ Beotibar pilotalekuan, 10:00etan, Gravn txapelketaren partidak, esku pilotan.

■ Beotibar pilotalekuan, 19:30ean, Gipuzkoako Txapelketaren finalak zesta puntan, eskolarrak.

### Etzi, hilak 28

#### Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean, kadeteak: Tolosa-Soraluze.

■ Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, seniorrak: Tolosa-Urola.

#### Futbola

■ Berazubiko zelaian, 17:30ean, Erregional Ohorezko Maila: Tolosa CF - Berio.

■ Usabalgo futbol zelaian, 10:00etan, alebinak: Tolosa CF - Antiguoko.

#### Aizkora apustua

■ Zezen plazan, Olasagasti-Mendizabal desafioa, 12:00etan. Lau kanako enbor moztu beharko dituzte. Mendizabalek 4 minutuko abantailarekin ekingo dio apustuari.

# «Basamortuak abenturaren espirtu erromantikoa dauka; aske sentitzen zara»

CRISTINA MORATO » Kazetaria, idazlea eta bidaiaria

**Aisialdia** » Siriako basamortuan jatorrirra itzuli ez ziren emakume haiek ulertzea lortu zuen, zentzu batean, Cristina Moratok.

#### ASIER IMAZ

Amalur Jardunaldiak 2010 gaur amaituko da, Cristina Moratoren (Bartzelona, 1961) hitzaldiarekin. Azken egun hauetan basamortuaren hitzak entzuteko aukera egon da Topic-en. Natura, bidaia eta antropologia ardatz hartuta eremu zabal hauen inguruko hainbat historia kontatu dituzte bertara gerturatu diren hizlariak.

Cristina Morato *Emakumeen Ekialdeko bidaia handien* inguruan ariko da 20:00etatik aurrera. Kazetaria, idazlea eta bidaiaria 2005ean Ekialde hurbilera joan zen, orduz geroztik emakume bidaiarien memoria berreskuratzen ibili da.

#### Nondik helduko diozu bihar hitzaldiari?

Ekialdera joan ziren emakume bidaiari handien inguruan hitz egingo dut. Euren bizipenen inguruko bidaia bat izango da. Emakume hauek oro har aristokratik ziren, oso jantziak eta abenturazaleak. XIX. mendean Ingalaterra utzi eta Ekialdera joan ziren, hau *Mila eta bat gau* libururekin lotzen zutela.



HITZA

ko. Garai hartan, Ingalaterran, liburu hau ezkutuan irakurtzen zuten, bertako moralitate zorrotzaren gainetik. Emakume hauek Ekialdearekin amesten zuten: basamortuko karabaneekin, azokekin, haremekin, eta basamortuan bizitza nomada eta basati bat ezagutzeko aukerarekin.

#### Zu zeu ere ez zabilta urriti?

Abenturazale bat baina gehiago bidaiari bat naiz. Ez dut arriskurik edo nire burua proban jartzea bilatzen. Bidaia jakintza eskola bat bezala ulertzen dut, beste kulturetatik ikastea gustatzen zait, jakintza zabalzea.

#### Hala eta guztiz ere, turista bezala joanda ere, beti dago abentura edo arrisku puntu hori?

Bidaia guztiek dute abentura ukitu ariko da 20:00etatik aurrera. Turismo antolatuta eta gidatuta baino gehiago, bakarrik bidaia egin izan ditut, hilabete pare bateko iraupena dutenak. Aurki ditzakezun arrisku horietatik harago, ni ez naiz arriskua bilatzen duten horietakoa. Ez zait arazotan sartzea gustatzen.

#### Zer bilatzen duzu bidaietan?

Bartzelonan kazetaritza ikasten ari nintzela Nikaragua, Honduras eta El Salvadorrerara joan nintzen, bertako indigenen bizimoduak erakarritu. Antropologia ikasketarik ez dut egin baina beti gustatu izan zait kultura desberdinak gertutik ezagutzeko.

#### Bidaia bakoitza, barne bidaia ere ba omen da.

Peregrinazio edo erromesaldi bat ere bada, bai. Nire kasuan ez da nire arima salbatzeko erromesaldi bat izaten, jada ez dakit salbaziorik izango duen edo ez, baina, zure burua gehiago ezagutzeko barne bidaia izaten dira. Aldatu egiten zara. Tolosako hitzaldietan adibidez, basamortuen inguruan hitz egingo da. Basamortura bidaiatzen duzunean, beti dago barne haustura bat.

#### Ihes egiteko modu bat ere izan daiteke?

Zalantzarik gabe. Bihar (gaur) emango dudana hitzaldiko protagonista gehienak Ekialdera ihese-

an doaz. Victoria erreginarengana Ingalaterra atzean utzi nahi dute. Zergatik? Moralitate zorrotz horretan bigarren mailako hiritar sentitzen dira; lekuz kanpo dauden emakume aurrerakoak dira. Euren ametsak betetzeko, eurek bizi nahi duten bizitza egiteko, Ekialdera ihes egin behar dute.

#### Zuretzat zer da basamortua?

Askatasun osoa sinbolizatzen duen leku bat. Abenturaren espirtu erromantikoak bertan dirau. Siriako basamortuan egon nintzenean liluratu hori ezagutu nuen; zentzu batean emakume horiek basamortuan zergatik gelditu ziren ulertzea lortu nuen.

# TXOTX

**Rezola** Tel.: 943 556 637 Astigarraga  
Ipirita baserria - Soraluze Zaharra www.rezolasagardologia.com

**Oialume Zar** Tel.: 943 552 938 Astigarraga  
Mikel Arozamena bidaiaria, 16 (autobus geltokitik gertu)

**Akelenea** Tel.: 943 333 333 Astigarraga  
Oialume bidaiaria 57 www.akelenea.com

**Gurutzeta** Tel.: 943 552 242 Astigarraga  
Oialume bidaiaria 63 (sarrera Ergobizirik) www.gurutzeta.com

**Lizeaga** Tel.: 943 468 290 Astigarraga  
Gartziategi baserria, Martatzen postakalea, 139

**Mina** Tel.: 943 555 220 Astigarraga  
Txerrikieta postakalea

**Gartziategi** Tel.: 943 469 674 Astigarraga  
Donostia Astigarraga bidaiaria, 5.kor. www.gartziategi.com

**Elutxeta** Tel.: 943 556 981 Urnieta  
Ostaraun auzoa, 34 - Elutxeta baserria

**Larre Gain** Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani  
Larre-Gain baserria, Ereflor auzoa

**Otsua-enea** Tel.: 943 556 894 Hernani  
Ostaraun auzoa

**Iparragirre** Tel.: 943 550 328 Hernani  
Ostaraun auzoa, 10 www.iparragirre.com

**Urdaira** Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urdail  
Urdaira baserria

**Arratzain** Tel.: 943 366 663 Arratzain zahar baserria Urdail  
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

**Urbitearte** Tel.: 943 180 119 Ataun  
Ergoiena auzoa

**Ohiarte** Tel.: 943 501 013 Zeran  
Ohiarte baserria

**Isastegi** Tel.: 943 652 964 Tolosa  
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

**Begiristain** Tel.: 943 652 837 Ibarategi  
Ibarategi baserria

**Zabala** Tel.: 943 690 774 Aduna  
Garagarra baserria (Goberu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com

**Sarasola** Tel.: 943 690 283 Asteasu  
Bebalera auzoa

**Ola** Tel.: 943 623 130 Iruñe  
Mizka auzoa, 102

**Lindurrenborda** Tel.: 948 637 212 Lesaka  
Nabaz auzoa, 8

## DIEZ Autobusak

Autobusak eta taxiak ez dira bereak. Autobusak eta taxiak ez dira bereak. Autobusak eta taxiak ez dira bereak.

Munduko telefono: 041 Tel.: 943 28 84 18 / Fax: 943 27 11 37 / 20012 DONOSTIA

Posta elektronikoa: molaia@autocaresdiez.net

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritza edota Euskal Filologian lizentziatuak**  
edo ikasleak behar dituzte  
**lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info** helbidera

## Kostaldera moto-bira antolatu du Langostinok

**Ibarra** » Motozaleen elkarteak goiz-pasa antolatu du etzirako. Aldez aurretik izena ematea gomendatzen dute.

### ERREDAKZIOA

Ziklogenesiaren ondorioz, aurreko irteera bertan behera utzi ostean, txango berri bat antolatu dute Langostino Moto Kultur Elkartekoek asteburu honetarako. Barnealdetik, Gipuzkoako kostara joango dira, goiz-pasa egiteko.

Etzi urteko hirugarren moto-bira egingo dute. Ohi bezala, San Bartolome plazatik abiatuko dira igandean, 09:30ean. Moto-bira edozein motatako motorekin egin daiteke. Ibarrik abiatu ostean,

Tolosa, Anoeta, Zizurkil, Asteasu, Andazarrateko mendatea, Aia, Orioko mendatea, Zarautz, Getaria, Zumaia, Zestoa, Azpeitia, Urrakiko mendatea, Bidegoian, Albiztur eta Tolosa zeharkatuko dituzte, berriro Ibarra itzultze-ko.

Ibilbidean zehar, Azpeitian geldialdia egingo dute, Rochas Txoperreren hamaiketako egiteko. Antolatzaleek adierazitakoaren arabera, mokadutxoak egiten zenbat lagun izango diren jakitea komeni da, hori dela eta, parte-hartzaileei aldez aurretik izena emateko eskatzen diete. Hau posta elektronikoz (*langostinomotofesta@gmail.com*) edo hurrengo telefono zenbakietara deituta egin daiteke: 618-448194 (Aitor), 670-417915 (Moski) eta 636-403170 (Ander).

## Laburrak

### Udalaren Ohiko Osoko Bilkura izango da gaur

**LEITZA** » Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkura egingo du gaur 21:00etatik aurrera. Bertan ondorengo gai-zerrenda jorratuko da: 2010. urteko plantila organikoaren onepena; zabor bilketa zerbitzurako nabea erosteko proposamena; Barbiur S. L. elkarteak eta Maderas Leonet S. L. elkarteak loteak erosteko egindako eskaintzak; 2010. urteko aurrekontuaren 2. aldaketa eta Erleta eskolan igogailua jartzeko proposamena.

### Paper antzerki tailerrak Aste Santuan, Topic-en

**TOLOSA** » Tolosako Ekinbide Etxeak paper antzerki tailerrak antolatu ditu Aste Santu hauetarako. Saiogai Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan izango dira. Bata haurrentzat izango da, eta bestea helduentzako. Biak ere apirilaren 6an hasiko dira, eta 9-10 orduko iraupena izango dute. Hauetan izena eman nahi dutenek telefonoz deituta egin dezakete. Horretarako, 943-65 0414ra deitu beharko dute eta Karmelerekin hitz egin.



Ibarako Kultur Etxean, belaunaldi ezberdinetako hainbat herritar elkartu ziren, deialdia egiteko. E. EZEIZA

## Ikurrinak balkoietan jartzeko deia egin dute herritar ugari

**Ibarra** » Hainbat ibartarrek agerraldia egin zuten herenegun, Aberri Eguna bitartean ikurrinak zintzilikatzeko eskatuz.

### ERREDAKZIOA

Belaunaldi, alor eta pentsaera ezberdinetako hainbat herritarrek agerraldia egin zuten herenegun, ibartar guztiei eskatzeko «Aberri Eguna bitartean, etxeko balkoietan ikurrina jartzeko».

Apirilaren 4ean ospatzen da Aberri Eguna, «euskal herritarrok gure herriaren jabe izateko dugun borondatea agertu eta eskubidea aldarrikatzeko eguna».

Ibarako herritar taldearen esanetan, «ikurrinak Euskal Herria ordezkatzeko, zazpi herrialdez osatutako nazioa». Hori dela eta, hau balkoietatik zintzilik jartzeko

deia luzatzen dute, eta apirilaren 4a arte ez kentzeko eskatu. Honez gain, ikurrina beste hainbat aldarrikapen eta ideien adierazle dela ere nabarmendu zuten agerraldia egin zutenek. Ikurrinak «euskara, euskal selekzioaren ofizialtasuna, gure kultura, hezkuntza sistema propioa, egutegi propioa, kultur aniztasuna, errespetua...» aldarrikatzeko balio duela nabarmenduz. Hori dela eta, ikurrina zintzilikatzea garrantzitsuztat jotzen dute, «gure sentimenduak eta Euskal Herriarekiko maitasuna adierazten baititu».

### Aberri Eguneko aldarriak

Apirilaren 4a Euskal Herriko hainbat eta hainbat txokotan ospatuko da, eta aldi berean, aldarrikapenak egiteko erabiliko da. Horietako bat izango da euskaraz bizitzeara. Bai Euskal Herriaren hitzetan, «euskara da gure hizkuntza nazionala eta egun hankapean darabilte atzerriko lege eta administrazioen jukutrien mende».

Euskaraz bizi nahi dela ez ezik, Euskal Herria, nortasun propioa duen nazio bat dela erakusteko ere erabiliko dute. Honekin lotuta, «nortasuna gure izatearen oinarri gisa dugu, gure kultura usadio eta sustriak eten eta desitxuratzeko saiakerak ez du etenik» salatzen dute. Azkenik, hezkuntza sistema propio baten beharra aldarrikatu dute.

«Munduaren aurrean euskal herritar gisa, nazio libre bateko partaide bezala agertu ahal izateko bide horretan», Aberri Eguna horretarako lehen pausoa dela uste dute Bai Euskal Herriarekikoek. Hala «bide hau euskal herritar guztion artean egin behar dugula. Batzen gaituenari helduz, Euskal Herria eraikiz eta gure eskubideak defendatuz», adierazi zuten.

«Munduaren aurrean euskal herritar gisa, nazio libre bateko partaide bezala agertu ahal izateko bide horretan», Aberri Eguna horretarako lehen pausoa dela uste dute Bai Euskal Herriarekikoek. Hala «bide hau euskal herritar guztion artean egin behar dugula. Batzen gaituenari helduz, Euskal Herria eraikiz eta gure eskubideak defendatuz», adierazi zuten.

### Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Urika kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gubirik ezagutzen zituen datuak argituz.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiaren testigantzak.

## eskaintza berezia

BERRIAren eskutik

15€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu

www.berria.info

harpidetza@berria.info

943-30 43 45

Aukera ezazu,  
BIZI EUSKARAZ  
**berria**



**Martxoak 28 igandea**  
**18:00**  
**tolosako beotibar**  
**pilotalekuan**

bertsolariak:  
uxuealberdi - ametsarzállus  
sustraiacolina - andoniegaña  
unañturriaga - ionmaia  
aitormendiluze - aitorsarriegi

gai jartzaillea:  
amaiaagirre

Sarrerak:  
aurrez 10 euro  
egunean bertan 12 euro

Salgai:  
-Azpeitiko eliku zenroan  
-Lasarteoko jalgi tabernan  
-Tolosako orbela, raku eta  
ikatza tabernetan  
-kutxanetan

# Desadostasun ugari sindikatuen artean

**Hezkuntza** » Atzo izandako bileran LAB eta UGTk lanuzteak bertan behera uzteko erabakia berrestu zuten.

**ERREDAKZIOA**

Eskoletako jangeletako gatazka amaitzear zela zirudien atzo goizean, baina arratsaldean izandako bileran LAB eta UGTren eta ELA eta CCOOen arteko desadostasunak agertu ziren. Izan ere, LAB eta UGTk herenegun esandakoa berrestu zuten, hau da, patronalarekin negoziatzen zuten bitartean lanuzteak bertan behera uztea, atzoko izango zelarrik azken greba eguna. ELA eta CCOOen ustez berri, ez dira herenegun aipatutako baldintzak bete eta beraz, lanuztekin jarraitzeko apustua egin zuten.

Herenegun negoziatzen hasiko zirela zirudien; mahaian eseri ahal izateko «soldatei dagokienez aurrekordio» batetara iritsi ostean, ordezkari sindikalek eta patronalak agertutakoaren arabera. Baina atzoko greba eguna, dena den, ezin izan zuten bertan behera utzi astirik izan ez zutelako. Langileen hitzetan bazirudien patronalak «jarrera aldatu» zuela, baina atzo

arratsaldeko berrien arabera ELA eta CCOO ez daude horren ziur. Langileen eskaera nagusia kudeaketa zuzeneko eskola jangeletako langileen lan baldintzak sektoreko beste langileen lan baldintzekin parekatzea da. Urte bete baino gehiago pasa da kudeaketa zuzeneko jangeletan gatazka hasi zenetik eta azken hilabeteetan astean bitan egin dituzte lanuzteak.



Azken hilabeteetan behin baino gehiagotan hustu dira jangelak, irudian Tolosako Samaniego ikastetxeko urtarrelean. E. EZEIZA

# Leire Olaberriak Munduko Pista Txapelketan hartuko du parte bihar eta etzi

**Ikaztegieta** » Omnium izeneko diziplina berrian ariko da lehenik eta ondoren, puntu bidezko lasterketan.

**ERREDAKZIOA**

Leire Olaberria Kopenhagen (Danimarka) dago Munduko Pista Txapelketan parte hartzeko. Bihar omnium izeneko diziplinan hartuko du parte, diziplina olimpiko berria dena, hain zuzen, eta etzi berri, puntu bidezko lasterketan arituko da.

Londres 2012rako egindako programa olinpiarraren berrikuntzaz geroztik, non puntuaketa alde batera utzi duten eta omnium-a jarri duten, proba hau prestatzeko lanean aritu da ikaztegiatarra. «Oso gogorra da horren desberdina diren lasterketarako entrenatzea, iraupen-lasterketako lau eta abiadura-lasterketako bi. Nire helburua abiadura lasterketan hobetzea da, baina erregulartasuna hartzen dute kontutan, eta horixe da nire indarguneetako bat», azaldu du Olaberriak.

Orain Londreseko 2012ko Joko Olimpikoetara begira dago txirrindularia eta ondoren erabakiko du zer egin etorkizunean: «ez dakit zer egingo dudan, orduan erretiroa hartu edo beranduago, baina kirolarekin zerikusia izaten jarraitu nahi dut».



<p><b>TANGA</b> PROFESIONALENTZAKO <b>FINKO OSOA</b></p>	<p>Deitu 0 zent./min. ordainduta Edozein ordutan Operadore guztietara Bidali 100 SMS hilean Hilean 100 MB-ko Internet eta posta</p>	<p>Hori guztia, hilean <b>59,9</b> € bakarrik ordainduta</p>
--	---	--

**zuntzOptikoa** zuntz Euskaltelen saltokira, **erdi deitu 900 840 200 telefono-zerbitzua**

Tanga Finko Osoa Muga: hilean 100 minutu, erabari ordutan erabari Finko edo mugieretara deituko. Erabari deitu eta SMSak. Ez dira erabariaren sartze-erabari berezi-laburmetak deitu, sare adierazleak, tarifa bereziko zerbitzuak, laster deitu, roaming-a, nazioartekoak, datu-konexioak, SMSak/MMSak eta Premium mezuak (zerbitzu horiek indarman dauden tarifei azaratu behar dira). Deialdeko zerbitzuak mugatu ondoren: 10 zent./min. eta data ezarrita, 15 zent./MB. Ez da erabari deitu. Hiri bakoitzean ezarritako erabari deitu eta deituko erabariak ez dira jazarriko. Hilean 100 MB datuak transferituko, eta, hori gainetik ondoren, abiadura jartzen, erabari deitu. Erabari deitu erabari deitu deitu. Ez da sartzen Erabari deitu eta 100 MB-ko jazarria. Zerbitzuak 18 hilabetez eta kontatutako prezio-jarria 12 hilabetez isurtuko lezazkoak. Aldi kopurua mugatuta 400.

# Txapela berriz janzteko aurkari «gogorra» dute

**Pilota** » Aurrera-Saiazeko pilotariak bihar jokatu dute Berria Txapelketako finala Galdakaoko Adiskide elkartearen aurka.

IMANOL GARCIA

Eskualdeko ordezkariak izango da beste behin Berria Pilota Txapelketako finalean. Aurrera-Saiaz elkarteak Galdakaoko (Bizkaia) Adiskide izango du aurrean, bihar, 10:30ean, Hernaniko frontoian. Hirugarren aldiz ariko da finalean Aurrera-Saiaz Berria Txapelketan. Lehenengoan Amezketako Zazpi-Iturriren aurka galdu zuen eta bigarrenengoan, iaz jokatu zutena, irabazi. Txapela defendatuko dute beraz eskualdeko pilotariak, baina ez da final xamurra izango. «Talde oso trinkoa du maila guztietan, guk bezala», dio Luis Gala-



Aurrera-Saiazeko pilotariak Luis Galarragarekin batera Beotibar frontoian. Bertan jokatu zuten finalerdia Zazpi-Iturriren aurka. A. IMAZ

rraga Aurrera-Saiazeko arduradunak.

Eskualdeko taldetik jokalaria berdinak parte hartuko dute. Kadeteetan Labaka-Elustondo, jubenetan Urbieta-Zinkunegi eta nagusietan Renobales-Galarraga. «Kadeteetan espero dugu finalerdian baina partida hobea egitea», dio elkarte arduradunak. «Galdakaoko Elezkanok maila handia du, baina saiatuko gara garaipena lortzen. Partida guztiak jokatu egin behar dira».

Jubeniletan aukera gehiago ikusten ditu Galarragak. «Euskadiko finala Adiskideren aurka jokatu genuen eta irabazi genien». Orduan Elezkanok kadeteak jokatu zuen jubenetan mailan eta oraingorik bikotea Legorburu-Galartza izango da. «Partidagogorra izango da. Gure maila ateratzeko aukera badugu gure aukera izango dugu», dio Aurrera-Saiazekoak.

**Partida erabakigarria**

Nagusien partidak garrantzi berezia du Berria Txapelketan. Elkarte batek kadeteetan eta jubenetan irabazten badu ere, hiru partidetan elkarte bakoitzak lortu dituen tanto kopuruak hartzen dira kontuan. Bi maila horietan bana irabazten badute elkarte bakoitzak, nagusien mailako partida irabazten dutenek eramatan dute norgehiagoka.

Nagusien mailan Adiskideren ohiko bikotea Elezkanok-Ajuria dira, baina Galarragak uste du Uriarte-Ajuria izango dela Hernanin ariko direnak: «Uriarte profesionala izandakoa da Asperekin. Berria Txapelketan bakarren bat jokatu du. Berriz ere partida gogorra izango da eta tantoak bukatzen asmatzen duenak eta akats gutxi eginen duenak irabaziko du partida eta horrekin batera Txapelketa ere».

## Errendimendu Txapelketako finalean, Intxurreko bi talde

ERREDAKZIOA

Bihar amaituko da Errendimendu Mailako Alebinen Txapelketa eta Intxurre elkarte bakoitzak finalak jokatu dituzte. Intxurre 1 taldeko Gorka Altunak eta Aratz Irastabarrenak Gipuzkoako finala jokatu dute Bergara taldearen aurka bihar, Araman, 16:00etan. Intxurrekoek finalerako txartela lortu zuen 16 eta 6 Behar-Zanak pilotariei irabazita. Bestalde, Deba-Goierrri-Tolosalde eskualdeko finalean izango dira Intxurre 2 taldeko Xabier Luzuriaga, Jon Luzuriaga eta Aitor Murua. Bihar jokatu dute partida, Lazkaon, 16:00etan, Idiazabalgo Atxurbide taldearen aurka.

**Udaberri Txapelketa**

Ikaztegieta jokatu dira bihar ere, 11:00etan hasita, Udaberri Txapelketako 3. mailako kadete eta nagusien finalak. Azken honetan jokatu du Asier Alonso-Iñaki Olano Intxurreko bikoteak, Astigarragako bikotearen aurka.

**Zizurko Lau t'erdiketa**

Zizurko buruz buruko Lau t'erdiko txapelketan eskualdeko hainbat pilotari izango dira. Bihar jokatu dira finalak, 09:00etan hasita. Guztira zortzi final jokatu dira, eta eskualdeko sei pilotari sartu dira horietako bostetan: bigarren urteko infantiletan, Larrea ikaztegiatarra (Txapagain); lehen urteko

kadeteetan, Olano leitzarra (Aurrera); bigarren urteko kadeteetan, Artola alegiara (Intxurre); lehen urteko jubenetan, Gailurralde amezketarra (Zazpi-Iturri) eta Jaka lizartzarra (Zazpi-Iturri); eta bigarren urteko jubenetan, Urretabizkaia ikaztegiatarra (LAPKE).

**Aurrerakoen partidak**

Leitzako Aurrera elkarteak Olano Zizurko finaleko aurkari berdina izango du, Zugarraldeko Agirre, Antiguoko Txapelketan. Bihar jokatu du, 19:00etan. Bihar ere, Gartziaarena-Galartza infantilek Irurtzunen partida izango dute, 10:30ean.



## Bertsolarien jarioa Gurea aretoan

**VILLABONA** » Erribea Institutuak antolatutako duen Euskararen Astearen baitan bertsosaioa izan zuten atzokoan Gurea aretoan. Bertan izan ziren Beñat Gaztelumendi, Beñat Iguaran, Ane Labaka eta Iñaki Mantzisor Mantxi bertsolariak. Amaia Agirre gai jartzaile lanetan aritu zen. I. GARCIA

## H Hilberria

**MIKAELA ERAUSKIN ARANA**

**ANDREA**

(Acacio Iglecias-en alarguna)

Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere seme-alabak: Miguel (†) eta Izaskun Tolosa, Javier eta Helena Baralbar, Jose Luis eta Rosa Arcelus, Jose Ignacio eta Maite Agirre; bilobak, birbilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde olotz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzela GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SANTA MARIA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: San Cosme eta San Damian.

Helbidea: Gorosabel, 36.

Oharra: Gorputz bella Tolosako ORIA EHORZKETAN (Usabal poligonoa, 12, B) gaur goizeko 09:45ak arte egingo da.



**TOLOS**  
2010eko  
martxoaren 26a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN

ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA

902 402 900





16°  
9°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Larraul.** San Esteban eta San Bartolome festak antolatzeko bile-  
ra egingo dute 21:00etan Kultur  
Etxean.

### Dantza

■ **Tolosa.** Aukeran dantza talde-  
ren *Gemika* emanaldia Leidor are-  
toan 20:30ean.

### Musika

■ **Tolosa.** Rafa Ruedaren kontzer-  
tua Bonberenean 22:30ean.

■ **Villabona.** 19:15etik aurrera, Ere-  
sargi abesbatzak bere ohiko kon-  
tzentzia emango du Jesusen Biho-  
tza elizan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte M.T. Euskal He-  
rria, 46. 943 67 01 28.  
■ **Lekunberri.** Mendia M. I. Aralar  
kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkarian adierazitako esanena  
eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



**Zorionak!**  
**Itoitz (Areso).**

Hiru urte gurekin.  
Muxu asko!!

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

agurrak

# Lanak salatzeako martxa

**Tolosa** » AHTren lanak gertutik gertura ikusi zituzten atzo Ugane auzoan, Ertzaintzaren prezentiarekin.

### ERREDAKZIOA

Tolosaldara ere iritsi dira Abiadura Handiko Trenaren egiteko lanak. Une honetan, Ikaztegieta inguru-ko Tolosako Ugane auzoa izango da kaltetuena, AHT Gelditu! Elkarlanak esandakoaren arabera. Abiadura Handiko Trenaren aurkako jarrera hau, atzo kalean eta auzoaren inguruetan erakutsi zuten hainbat lagunek.

### Ikaztegieta Udalak deituta

AHT Gelditu! Elkarlanaren laguntzarekin, Ikaztegieta Udalak martxa bat antolatu zuen atzora-ko. Udaletxetik 19:00ak inguruan irten ziren proiektuaren aurkako oihuak botaz. Ertzaintzaren bi furgoneta aurrean eta atzean izan zituzten ibilbide osoan zehar.

Tolosako Ugane auzoan Abiadura Handiko Trenaren lanak egiteko prestatzen ari dira. Auzotarrak errepidearen inguruan kexa bat sartu zuten udaletxean, bidea garbi mantentzeko neurriak eskatu. Atzoko martxaren helburua proiektua bera salatzea zen. Horretarako lanak hasi dituzten lekura gerturatu ziren, *Herriak bizirik, AHTrik ez!* lelopean burutu zuten martxan.



Ikaztegieta Udalak auzora joan ziren hainbat lagun, lanak ikustera. A. I.

**GURE DENDAK BERRITU EGIN DITUGU, ZUGANDIK HURBILAGO IZATEKO!**  
Zatoz une gozo bat igarotzera

**Aprobetxatu gure irekiera-eskaintza!**  
LG hauetako bat hartzen baduzu, esku libreko bat doan

**opari!**  
LG HF8500

Bluetooth esku libreko kita, eguzki-argiaren bidez kargatzen da

San Francisco, 19, Tolosa  
943 69 81 36